LIZARDI

OLERKARIA

LAUAXETA

Izadiaren aintzinean sortuak dira. Lizardi agoxuria zen eta etzun aiztu esakun ura: Gayari neufia ezafi beaf zayo, azalez ta mamiz. Banan-banan aztertuko ba geuzke aren lan guziak, izadiarenganako zun maitasun samufa erakutsiko nizkizuet, bañon astirik eztegu ta arinka goazi.

Bake zoragafi batekin zelaira etortzen zan urari, zer ematen zion izadiak? Nire gogoan orain Italia'ko Leopardi'ren neurtitz batzuk. "L'Infinito" entzutetsuan:

"...Cosí traquesta
immesitá s'annega il pensier mío;
e il naufragar m'é dolce in queste mare".

Zabalune sakonetan gure gogoak galtzen dira eta konturatzean obe gerala oartzen degu. Zerbait barnean saftu zaigu ta lafosak sortzen diran bezelaxe kolkotik irtetzen zaizkigu bertsoak. Leopardi'ren begiak betiraunera so-egiten zutenean sentitzen zutena, Lizardi'renak ere sentitzen zuten. Nire gomutan orain:

"Oi zein aizen edef, loa
eriotz anaitzakea
bizitzako furloa..."

Eta ama kutun batek bezain ongi arima bete zion izadiak. Ofela ikasi zun grezitafak "sophorosines" eta geronek "gokentza" deitzen deguna. Lizardi'ren gogotik irtetzen ziran olerkiak azalez eta mamiz berdindurikan itzakin egiten zitun estalkiak, edefak ziran, bañon gogayak edefagoak. Idurimenak lafogirik ez, biotzondoa ete neufian Agife'ren idazlanak legofak iduri lenengoz, izadia-antzo baña begiak zabaldu ta adimenak jardun ezkeroan, muin samufa, azal zoragafia ta edeftasun bikañak arkitzen dira. Ondo pagatu zion izadiak bereganako maitaun ura.

Ametsezko aundu baten etzan bizi, egizko munduan baizik. Ofegatik aren olerki irakurtzerakoan ludia zer dea ulertzen degu ta beriala leyoak zabaltzen ditugu. Zelairuntz begira irakurtzeko egiñak dira, aize ozkifia sentitzen degula ta zugaitzen osto-otsa entzun.

Estetikarik euki ba zun txindof urak, eztakit baña aren estetika auxe izanen zala uste det. Edertasun iristeko arima edefa euki beaf degula, bakez geurekin eta bakez urkoekin bixi eta oldozlari-bage, begi ratzale ixan. Begietatik sartzen zaizkiguna bezain lirañik ezpaita.

Edertasun ori barneratzen zaigunean, ordea, oyartzuna bezelaxe entzun beaf degu arimaren dardara.

Azalekiko gauzai gure barneko aztafa eman diegun, elertilari dena izaki guzien barne-barnean tinkatzen delako, gero erditze zoragafia eukitzeko jasaz. Olefkari denak ludiko ezeren irudia edo sinboloa igafi beaf du. Irudiak lotan daude, bizitza-gabe, nork unkituko dien ifi-egiteko. Lan au agoxuriz eta sakonez egin zun Lizardi'k. Ofela ikusi zun Itzal yaukalaren irudi mea. Oraindaño beste iñork berdiñik ez digu atzaldu aren neufian.

Betiko il ziran mitologi-irudiak eta befiak beaf ditugu. Lan au dagokie elertilariai. Itufietan eta latxiñetan ere irudi txoragafiak ikusten omen-ziran, keskatxak dantzan soñeko-gabe, eta jaingoko-emeak argiz jantzita, bañon gauf alako irudiak bafegafi dira. ¿Zer egingo? Of degu Itzal, or ditugu "suzko-itxasoa", "adizkide txindof", "kilkef ere olefkari". Gerbault bakartia ere ikusi du olerkariak, "ufe-zauri", "burnimeatz iduri" eta abaf. Irudi guziok ama izadiak eman zizkion eta olefkari guren bati dagokion eran, laburkiro, erdiz esanikan utzi zizkigun.

Idurimen sendoa dutenak, gauzak ulertarazitzeko toki baten ezafi beaf. Dante irudi bila etzan ufunera joaten, bere liburua irakufiko zutenak ezautzen zituzten tokietatik irudiak artzen zitualako. Of alboko mendi ori, inpernuko arek irudi, edo Efoma'ko zubi ura. Efitafen buruban diran gauzai irudi bat eskatzen zien. Ormuz'ko perlak eta China'ko lorak ekafiko dizkigute irudi bat emateko, nik ordea Ormuzko perlak edo China'ko lorak ez ditut ezautzen. Len bezain ilun nago. Gizon aren zudufak, Txindoki iduri esan badidazute, edefki ulertuko, edo pago baten antzeko zen. Pago asko ikusi baititut ene bizian.

Baña olako oafak olefkari ta elertilari gurenai dagokiez. Lizardi bat zen. Onez ganera ere, irudiak atsegingafi izanen badira, labufkiro atzalduak bediz. Mallarne'k esan zigun "como" edo "antzeko" itza, ludiko iztegietatik baztertu beaf zala. "Bezelako" asko erabiltzen dituztenak, olefkari txafak. Lizardi'gan eztitugu "bezelako" asko arkituko.

dantzari-talde Baco'tiafak
naspil-zoroan zati-baldafak
esku-goituan ontzia ardó..."

Klasikoen seme zan gauz oneitan, nik klasiko asko ikasia bazen ez dakit bañon. Aren arima grezitaf edo efomataf baten arnasas bizi. Lirikan tankera bi dira; bata eresizkoa, bestea landuzkoa. Lizardi'k landuzkoa edo eskulturala atzeman zun. Horatus'en jafaile, uste-ezik, biaf ba. Jauregi edo Tapia-Perurena ditugu musikales edo Heine'tafak.

Horatius'en jafaile diranak, ordea, ilun-xamaf idazten emen-dute. Nireketz ez. Bulkoa itz gutxitan atzaldu nai digute, azal labufez. Muina gozartzeko maskofa puskatu beaf: Iñork esan du Lizardi ere ilun eta ulerkaitza zala. Nik ez. Presaz idazten zunetan, aren kidekorik ez, argi idazten. Bañon idazle askok darabilakiten gogayak aren buruan etziran. Gaurdañako olefkari geyenek txoriak, zugatzak, basetxeak eta olako gauzak erabili dizkigute. Ulerkaitza eztegu Agife bulko oyezaen jaube baizik. Euzkeraren muiña ezautzen zun, iñork bai eta arek. "Orixe,,'ren itzak ene buruan: Gurean orainarte ezdu izan kiderik, nekez duke garaitzalerik". Izkuntza efax, ugari ta laistef erabiltzen bazekin, bulkoak ziran ordea, iñoiz euzkeraz jantz ezak.

Irizle batek esan omen-du, Lizardi kaltegafi izanen dala geure elertian. Ori txorakeri bat baizik eztegu. Euzkerazko olerkiak gaitz bat edo akats bat dute: efextasunaren kaltea. Mila itz bulke bat atzaldutzeko. Gero konsonantek egiteko efaxtasuna delako, bertso bat eta bertso bi, mamigabeko olefki. Lizardi'ren bertso batzuk ulerkaitzak baitira. Bizi bazan ofaztuko zitun, bañon ulerkaitz ofen aztafanak beste olerkari askoren idazlanetan ikusten ditut. Aren bitartekotasun andiak susmatzen ditugu.

Efexagi diranak, neufira ifzuliko dira. Lizardi'k ahapal bakanak egin nai zitun eta izkuntza ere landu beaf. Landuten zun bitartean, bertso batzuk ulerkaitzak. Bañan izkuntza ez jakiñak ezion ori eman. Lafegia nai zun, egun batez egin nai eunduiak egingo dutena. Euzko-lietauran bitartekotasun andia izanen du geure olerkari maiteak. Izkuntza landuten erakutsiko die azkori. Gure ele au ezautzen ezdegunok, iluna dala esanen dogu, bañan geugan efua degu, ez bestegan. Baita ere eriosuar irakurtzen ditugulako.

(Dafaike.)

Afa-ama bitxijak ixan ziran geure adizkide on eta abefkide zindo Afuti'taf Andoni eta Naberan'daf Jule Josune, emakume abeftzale zolijak.

Zorijonak, ba, danoi eta osasuna ameari, opa deutzubedaz.

ZORIJON GEYAGO.—Baña geure zorijonagufik sutsubena damotsogu geure abefkide zindo Labirua'taf Andoni'ri be, bere emazte Omaefementeria'taf Koldobike anderea San Sebastian osalarija'ren eritegijan ainbat ilabete eginda gero osatutzat lastef etzera datofela entzun dogulako.

GEYAGO BE, BAI. — Zorijon-agufa eta ez atzenetarikua atzoko EUZKADI'n agéftu zaran euzkal-idazle sutsu "Tximista,,'ri be. Tximistia baxen berua eta tximistafija baxen gogofa zara, benetan; eta egoki jatoftzu ixen-orde ori.

Geuk be ba-geunken zeozer esateko gogua baña ezkiñian, zu legez, gogof egiten azaftu. Ezagutu egiten gatube-ta... Baña zeozef biaf zan.

¿Ezin jakin-lei zeu nor zaran?... Iñori ez esatekotan be ez? Ixilien esango doztazu.

¿ETE-DA?—Guzuf edo egi entzun dodan lez diñotzubet, Datofen igandian ei-datoz margariftoen batzuk arteagatafoi adierazotera: Carlos Alfonso, nai Alfonso XIII, nai Juan II, iruroetatik geuk nayen dogun bat ipinten ba-dogu efege Madrillen, eurok emongo deuskubezala geure "fueruak"...

Ba, egin nagijela neu be eurak Alemania'ko "Enperadore" eta neuk emongo deutset euretariko edozein efi Madrid'eko efegetzia... Baña lenago esaidazube Elexa-Amak gebenduta daukon baltz eta zuri, liberal eta katoliko arteko ezkontzia zelan egin dozuben. Len obena zana ¿orain ez? Eztot aitzen.

IZPARKARIJA.

MARKINA

ANTZEŃKIJA.—Ila onen 25'kn. iragafiita eguan lez, antzezki-jai bat ixan geban batzokijan.

Lenengo "Lauaxeta,,'ren "Egaya", gero "Txomin afayo" ta gero "Mofoi jatofa".

Gure antzezlarijok, (gustijen ixenik ezin neike jafi luzatuko neuke-ta) bai neskatila ta bai muti)l, bakotxari jagokona edefto antzeztu eben eta txalo ugarijak irabazi ebezan. Gantxegi anderañuak be bai, bitaftietan loreskiña jota.

Antzezkixuna ikusten juan zan notintzeak, amaikatxu bafe-algada edef egin eban.

¿Ufengokua noz? Ufengokua... ez jakin ba. Orain gafantzi aundiko gauza bat dogu esku-artian-eta: auteskundiak.

IZPAŃ-BALTZAK.—Lengo astian donokiratu zan emetik gotzontxu bat. Ugarteburu'taf Iñaki ta Eizagife'taf Jone gure abefkidien semetxu Joseba.

Gotzontxubaren ondorik juan yaku. Bafenetxea'taf Imanol, larogetaz urtetako gixona. (G. B.).

DABILTZAZANAK. — Euren eskon-ibilketea eginda efiratu yakuz Urbieta'taf Alberta ta Malax-etxebafia'taf Ebentze senaf-emaztiak.

Bilbao'ra juan da Garate'taf Juste.

Emen egun batzuk igaro ondoren Bilbao'ra Astobitza'taf Efupin eta Oginaga 'taf Sofne.

Bilbao'ra egun batzubetarako Foruria'taf Garbiñe.

ASAŃIA.—Eta aundija atan be ei-dauke emengo... ta ona etofiriko gofijok, efi onetako izpafkari "Atxondo,,'k ikuturen bat egin dautsela-ta. ¡A, gixaxo-gixaxuak! Obarik entzun biaf dozube Jaunak osasuna emoten ba'dausku. Itxaron apuftxu baten.

ETE.

GALDAKANO'TIK

¡Udea!

Uda-alaya uda pozkofa
Oraintxe datof geugana
Negu baltzaren zartada balfzak
Jaurtiyaz alde batera,
Uda mafia ixan zafe, ba
Gustiz ondo etofija
Zeu zaralako askorentzako
Gauza gustiz pozgafija.

Zeu etoftzeak egiten ditu
Geure odolak bafiztu
Gixon ta andra zaf eta gaste
Askon bijotzak alafu
Negu-aldijan ikusten dodaz
Zeuri dituten askotxu
Eta esaten baidatof baña
Ondiñokafen ufintxu.

Mendi ta zelai eta baratzak
Zeu euran apaingafija
Bene-benetan Jaungoikoa'ren
Egizko ziñaldarija
Etxat atsegin niri guzufik
Esan biaf dot egija
Negubak iges egin eban ta
Orain da zure aldija.

Zeure usañek ekafiko dau
Lastef bai "kuku" txorija
Txoritxu au be dakigun legez
Bai, da, ba mafegafija
Zaindu, ba, afen orain arte lez
Goiko jaunaren lagija
Gora geu eta geutaf gustijak
Gora ba Euzko efija.

Zugatzaba'taf Balendin.

IXANGIZ

EUZKADI izpafingiko irakufle ta idazle gustijei be-yuakijue nire lenengoko aguf samufa.

Eta lenengo idazten dodan idazki onetan idoroko dozubezan utsak azketsi, ufengua uts gitxijagogaz idazten aleginduko naz-eta.

Entzun dogunez efi onetatik neskatila askok lekaime juateko ustia ei-dabe. Bai, ba; efi onetan neskatila asko dago egon be-ta... Ganera garizumako eleizkixunakaz -eta bijotzak samuftuta daukez.

Baña Paskuak datozanian, urte gustijetan lez jolasak asiko dira. Eta neskatilak jolas-zarateak jolas-tokira eruango dauz. Mutilak uferatuko yakeze, ta "mezedez" esan eta dantzarako defu... Ta dantzarako dei oneri ¿nok ezetz, erantzun...?

Mutilaen deira jolaseratuzkero, bafiz, atzefiko jolas zikiñetan jolastu biaf, eta ¡aguf orduban gure neskatila garbi-zalien "moja" juatiak...!

Lekaidetzarako baño, orduban ezkontzeko ariñago geftauko litzakezala uste dot, eta besterik ezian oskigle edo zapatarijakin be ezkonduko litzakezala.

Axangiz'en, bafiz, zapatarifan bat baño geyago dagoz, eta oskigileok iru obari edo bentaja eurenak dabez; eurija danian, atefpian egotia; eguzkija dagonian, gerizpetan egotia eta arerijua datofenian, zapata-nafua ebateko eukifen daben aizto zofotza.

Beraz senafa aftzekotan ¿nor oskigilia lakorik?

Ezkondu, ba, ezkondu, ezkontzen danak senafa beria ixango dau-ta. Ezkontzia ganera, gurutzea da, ta Kisto'ren gurutzea ludijan bizkaferatuta erijotza ordurafte lufera bota barik eruaten daunak, donokija be beria ixango dau.

LEKAIME. — Txopitea'taf Bedife efi onetako andereño gastia, Efenderia'ko eskafnetaf lekaimetara, lekaime juan zan.

Zeure bixikera lafi ofetan, Bedife, zorijontsuba ixan zafezala, ba, eta zeure otoi-aldijetan Euzkadi gaxo onen zorijonafen otoi batzuk egin barik ez itxi.

ARTEPE.

BIOTZ-BEGIETAN
Libro de poesías
con traducción castellana
Xabier de Lizardi
(Prólogo de «Orixe»)

UBIDEA

JUAN-ETOŃI. — Bilbao'ra Axuria'taf Eulogi mutil-gaste lerdena.

Gazteiz'dik Ulibafi'taf Agate andera Latxa'taf Bifof'en alarguna.

Bilbao'tik Unamuno'taf Akilin bere emazte ta lobakin.

GEXUAK. — Gexorik jafafuten dabe Ibargutxi'taf Jeronima ta Ibargutxi'taf Miren'ek. Txafagorik eztaukoe baña auferapen andirik bez. Baña ondiño gexorik aufkituten da Ibargutxi'taf Kasimire. Osatebakuntza ondo eginda ogetik yagiten azi-zan baña atzerakuntzia izan-eban eta egun batzuk alan-olakuak igarota orain ondo aurkituten da.

TAŃANTA.—Axuria'taf Toribi ta Josu arakin anayak tafanta edef bat erosi dabe. Ubidea'tik Zigotija'ra bitxabal bat egin dayela ta edefto. Neuk dakidan bat bixi-ixan bazan (G. B.) berekiren bat esango eban. Ori ziur.

Toribi ta Josu zorijonak eta aufera beti.

BAŃUTIJAK.—Zoritxafekuak dira aurtengo bafutijak, iñok be eztauz gura-ta. ¿Zergafik ete? Txafak diralako? ¡Bai zera! Ainbat bidaf txafaguak ixan dira, baña bere sasoyan saldu ixan dira. Artzañak txiro dagozalako? Ezta. Zergafik ba? Lengo egunian gixon batek esan euztanez artzañak "loukot" egin dabelako. Eztot uste augafik danik, baña alan balitz beste ofenbeste egin legije lugiñak be ¿eta orduan zer? Ordijak ume-aldijan bafuti-barik ezin egon ixango litzakez beintzat.

KUKUA.—Ondiño eztot entzun kukurik baña zozo ta bidegafuak ugari bai, batez be, "Zubizabal-dik" "Atx-gesto" bitaftian, goiz eta afatsalde emengo alafasuna andija da. Kukua be egun gitxi bafu entzuteko ustian naz.

ARETXETA.

Pavimentos y terrazas
Baldosas grés, barro y cemento.
Variedad en dibujos y dimensiones.
Existencias enormes.
Precios de fábrica.
Sociedad Artícu'os de Construcción
Hurtado de Amézaga, 12.—BILBAO

Euzkotarr umien aldez

Eguzkia ta asasuna

"Eta Jaungoikoak argi aundi bi egin zituan; bata argi nagusia egunerako..."
(Genesis, 1-16).

"Eguzkirik sartzen ez dan etxean, sendagileak sartu beaf."

Esaera onek egi aundi bat dio.

Idozeñek, nai aberatz nai txiro, diru gabe gaitz asko sendatzeko, Jaungoikoak egin zuan eguzkia.

Baña au onela izan afen, gizaldi askotan eguzkiari ez zayo yaramonik egin.

Gauf egunean sendagile danak diote, gaitz batzuek sendatzeko, eguzkia bezelako sendagairik ez dagoala.

Eguzkia, aizea ta ura, ara emen tru gauza; irurok ondo erabiltzen ba'ditugu osasuntsuak izango gera.

Bai dakizute zef dan erderaz tuberculosis esaten zayon gaitz izugafi, ta iñork sendatu ezin zuan ori. Orain ikusi da gaitz ofentzat, eguzkia dala osagairik onena, naiz biriketakoa dala, naiz estietakoa, naiz egufetakoa.

Gaitz bildufgafi ofegaz gaxo dagozanari, sendagileak eguzkia artzeko agintzen diote.

Len, gaitz ofek ikututako gaxoak, gaxotegietara eramaten ziran, eta an egon beaf izaten zuten euren azken itunari begira.

Gauf ez, gauf gaxo abek mendira eramaten dira, eguzkipean eta aizepean sendatu ditezen.

Baita ere zauriak sendatzeko ta gure gorputzaren azalari gogortasun berarizkoa emateko gauzarik onena eguzkia da.

Eguzki asko artzen duan azalean legenak, garaunak eta onelako gaitzak ez dakie ertetzen.

Aizetan eta eguzkitan asko ibili ezkero, erderaz anginas esaten zayon estafiko gaitzit, katafork eta ofelakorik ez da izaten.

Eguzkitan, aizetan, eta mendian ibilteko oitura ona artzen ba'dezute urte geyagotan, obetoago ta alayago biziko zerae.

¡Uri aundietan bizi diran, eta lantegi aundietan lana egiten duten notiñentzat, igandean-igandean mendira yoatea izango litzaken osasungafia!!

¡Eguzki gabeko etxea dan ituna ta gaxotsua!

Gogoan izan beti, ludiko belaf, zugatz eta lore gusti-gustiak nai ta nayezkoa dutela eguzkia bizi al izateko.

Baña ayek baño beafagoa degu guk Goiko-Jaun onak egindako argi bero, edef ori.

AŃITOKIETA.

DEUNEN BIXITZA

Ixidor deuna, Sevilla'ko gongotzaña

Cartagena-urian jayo zan Ixidor deuna. Sendi aberats bateko semea zan. Gudarien buruzagi bat bere aita. Bere amak, bafiz, aundizkien biziera inguratu oi daun dirdaitasuna baño agiriago erabiltzen eban biotzeko kiskartasuna. Biotz oneko emakumea zan. Oso elizkoya. Iru seme ta alaba bat izan zituen ezkontz-ondorengo. Laurak agurtzen gaur ditu deuntzat Eleizak. Senidietan gorengoera Ixidor deuna dala esan daiteke.

Alatz (mirari) baten bitartez adierazi eutson Jaungoikoak gerora uskurtza aldezteko emongo eutsozan doai afigafiak. Umetxoa zala, iñudeak bein batian oargabean etxeondoko lorategian itzi eban. Bere aita une aretan leyoan egoan basora begira. Bat-batean erle-mulko ugaria oartu eban zerutik iatsiz gora ta bera bufundaka ebilala. Gauza afigafi aren zergatia jakin nairik, mirabeakaz lorategira joan zan ta an idoro eban bere semetxoa. Erleak umetxoaren aboan sartu-urtenka ebiltzan eta eztizko estalki miragafia egin eutsoen ordurako aurpegiaren bira osoan. Malkoz beterik besarkatu ta mosukatu eben gurasoak gaztetxoa.

Orduezkero, Jaungoikoaren naya jakiñik, jakintza bidietan mutila gaitzen biziro alegindu ziran gurasoak. Auferakuntza aundiak egin zituan bereala Ixidor'ek bai uskurtz-gayetan, baita ere beste giza-jakintza guztietan. Garai aretan arek idazki bat idatzi eban eta bere anai nagosi Lander izendunak idazki ori Aita Santuari bialdu eutson. Idazki edefa zan; esakun sakonez eta bizitasun beroz josia. Idazki ori irakurtzean, afituri lotu zan orduko Aita Santua, esanaz: "Ara nun azaldu dan España'n Danel bafia ta Salomon bafia". Baña deun onen bizitzaren luzeran jakintza baño oargafiagoak izan ziran gogoko ondasunak.

Leobikilda efegea ziñauslea (erejea) zan. Afio'ren jafaitzalea. Egizko sinismenaren alde adoretsu jaiki ziran Ixidor'en anai nagosi biak eta efegeak erbestera bialduz zigortu zituan. Bidegabeko egite onek oso naigabetu eban anai gastearen gogoa ta baita ere egizko sinismenaren alde kementsu urten zan. Aren uskurtz-aldezko jardunari eutsi eziñik, gaste jakintsua erailtzea erabagi eben. Baña Jaungoikoak aldeztu eban aren bizia. Goragoko egiteak betetzeko gordea eukon, ba.

Efegearen eriotzaren ondorenean, ziñausleak (erejeak) oso ixildu ziran. Ekaitza baretu zanez gero, Lander, anai nagosia, bere lengo irakasletzara ta gongotzaintzara (arzobispado) biurtu zan baña bereala il zan. Aren ondorengo ao batez Sevilla'ko gongotzain izendatu eben Ixidor deuna. Bere algetasuna ta ezereza zala-ta, apaltasunez beterik, oaf-arazi eutsen bere sorbaldetarako azta astunegia zala emon gura eutsoezan eginbeafak, beaf bezela, betetzea. Ala ere, efiak nai ta nayez jaso eban eta gero Aita Santuak ere oso abegi ona egin eutson efiaren eskariari.

Engibeafak alik ondoen betetzeko gertu zan gure deuna. Egoki jokatu izan zan beti. Ez erabilan iñoiz zurikeririk iñorentzat; ezta ere lazkeririk. Esku bigunez eta zur jokatzen zan. Iñor mindu barik. Biotz on eta saintu bati dagokionez.

Ara zelan azaltzen dauskun Ixidor'en ikasle izaniko batek aren izaera txalogafia. Zaragoza'ko gotzain izanikoa da ikasle ori. Brauli izenduna. Ara emen arek iñoana. Gerokoan argi ikusten ekiana zan Ixidor; eskuak beti erabiltzan zabal txjroentzat; efaz eskeintzen eutson edonori bere laguntza; biotz zuzenekoa; esakun giafak ereiten zituan; Jaungoikoarentzat gizonen gogoak irabazteko alegiñetan iñoiz neketzen eta aspertzen etzana. Bere egiteak eta izena ludi osoan bafatu ziran.

Oitura garbietan eta jakintzaren neufizko zaletasunean egon daiteke edonoren atsegiñaren oñafia. Efientzat ere bardin da. Au dala-ta, oitura garbietara ta jakitearen zaletasunera eruan nai izan eban orduko gastedia. Ofetarako Sevilla'n bertan aztetxe berezi bat idiki eban. Uskurtz-gayetan eta giza-jakintzetan gastedia gaitu nairik. Aurki zabaldu zan ufuneko lufaldietaraño aztetxe ofen izena. An bildu ziran alde gustietako ikasleak ugari. Andik urtenikoak dira gixadiari jakintza-argia oparo ixuri dautsoen jakintsu asko. Bata ere an ikasi eben orain deun diran Brauli ta Ildeponsa deunak.

Ofez gañera, safi joan oi zan bere zaipean eukazan efietara Jaungoikoaren itza ereinez. Ezin ebanetan, bafiz, idazkiz, edo-ta bitafteko bereziz, bialtzen eutsezan bere onu ta aolkuak. Bere zaipean egozan efi gustiak artzen zituen aren ondasunak ugari. Olakoetan aldraka uferatu oi yakozan inguruetako gizonak bere aotik urtetzen ziran itz sutuak entzun gurarik. Aundizkiak eta gizon zeak arkitzen ziran aren ondoan. Arek egin oi zituan mirariak eta gexo-osatzeak afiturik eukazan, begiz kusten ebezan gustiak.

Sinismenaren garbitasunari erne egokion beti Ixidor deuna. Zurki zaitzen zituan Eleizearen aginduak. Elburu onez batzaf nagusi bi eratu zituan. Sevilla'n bat eta Toledo'n bestea. Lenen aitatu dogun batzafera Siria'ko gotzain bat joan zan. Eleizaren aginduetan lausoak eta makafak sartu nairik ebilana zan. Gizon afoa ta ziufa zan gotzain ori. Ondo ekian arek Ixidor deuna deuseztu ezkero, efazki irabaziko zituala beste eleizgizon asko. Baña itxaro ez ebana gertatu yakon. Ixidor'en aotik irtetzen zan ufezko ibayari eutsi eziñik, burua makurtu eban eta katolikoen bafutira biurtu zan. Entzute aundikoa izan zan Ixidor'en garaikundea.

Bigafen batzafean ere oso goratu eban Ixidor jakintsuak Jaungoikoaren izena eta bidenabaf berea. Irurogeta amaf gotzain bildu ziran Toledo'ko batzafean. An eratu zituan eleizgizonentzako arau bereziak; an ipiñi zituan efegientzat eta efegegayentzat legeak; eta an artu eban eleiz-oiturak erabafitzeko ardura.

Idaz-lan asko itxi ditu. Idazti ofeitan erein eta zabaldu eban bere jakintza afigafia.

Osasuna aulduz yoakola oarturik, eriotza beaf bezela artzeko gertu zan. Gexotasun gaizto batek jo eban eta eleizgizonai ta efikideai deituz, Bingen deunaren eleizara eruan egiela eskatu eutsen. An abots indartsuz Jaungoikoagana zuzenduz, bere obenen barkapena eskatu eutson. Negafa erioela entzun eutsoen ingurukoak.

Jaungoikoaren izena ezpanetan ebala 636'gafen urtearen jofalaa 4'an il zan.

A'TAR T.

ERRIJETATIK

DURANGO

"LAUAXETA,,'RI.—Igazi zan astian bidaldu neutzun idazkitxuba eztozu afgitaldu. ¿Zer dala-ta? Ezta afgi idatziña ez-egualako ixango ba beti legez bidaldu neutzun eta idazki ori zeure eskubetara eldu zala ziuf dakit. ¿Zer geftau zan ba?

"KIRIKIÑO".—Juan dan astian, euzkel-ikastoletako umiak Mañaria'n ixan ziran, Bustintza'taf Ebaista (G. B.) euzkeltzale entzutetsuba ixan zanaren ilobijan otoi-egitera. Gero, bere alargun Bustintza 'taf Basile' ikeftu ondoren pozik biuftu ziran euren etxietara abesti alayak abestuagaz. Eta Kirikiño'ren ixena idatzi dodan ezkero, gauza bat bururatu yat: ¿Ez ete dago auften beste uftetan egiten ixan yakon omenezko jaya egiteko asmorik? Kirikiño'ri ori baño asko geyago zor dautzagu. Euzkelzale Bazkuna'ko adizkidiak daukoe berbia.

ANTZEŃKI-JAYA.—Igandez, notintza edefa beftoraturik, egin zan AstarloaEtxian iragafiita eguan jaya. "Iru Gudari", Sota'taf Imanol'ak egin eta "Lauaxeta,,'k euzkeraldutako eresantzefki edefa oso atsegin ixan zan gustijendako ta ezta gitxiautarako be; antzeskixun au ikustian eta an esaten diran itz mamintsubak entzutian gure bijotz-bafua ikuturik, gure abeftzaletasuna biztu ta irakiten jaften da; au ondo ikusten zan ikusle gustijen afpegijetan; ango txaluak ez eukon amayerarik eta gustijak ondo irabaziña, bai Sota'taf Imanol'aren aldetik baña antzezlarijen lan edefagatik. Oneik egunetik-egunera euren lana onduaz doyaz baña igandian egin ebena ondutia gatxa ixango yake. Batez bere Safionandia'taf Begoñe anderañua Eguzkiñeren ingijan eta Zubia 'taf Aintzane, Ama'renian gorengo malan egon ziran.

Jantzijak eta Bilbao'taf Gontzal'ek egiñiko mafgoyalak be ikuskafijak ixan ziran eta antzezkixun edef au asko jantzi eben.

Bitaftiak, Safionandia'taf Joseba Mirena'k afteztutako seikotxak edefto alaitu ebazan eta azkenez erderazko "Tercero sin principal,,'gaz naikua bafe egin genduban.

Zorijonak jai onek ain edefto geftetan dakixuben gustijoi ta ajfatu beti ofetara.

ITZALDIJA.—Larunbata'n Afbeloa'taf Koldobika'k euzkeraz itz egin euskun. Oso txalotuba ixan zan bere itzaldi edefa.

GOGO-IÑARKUNAK.—Ostetza politia baña ez Durango'ri jaokan bestegaz, aste onetan egin dira euzkel-gogo-iñarkunak, aña Atutxa'k itz egiñik.

IBAIZABAL.

GAUTEGIZ DE ARTEAGA

DANA, ZORI-ONA.—Geure Uri-Buru-Batzaf'eko idazkari Omagoxeaskoa'taf Andoni'ri alaba edef bat ekafi dautso, igande gaberdiko amabijen otsagaz batian, bere emazte Abadia'taf Luke'k. Eta egubazten eberdiko amabijen otsagaz bat-batian ugutzau dabe Miren Josune euzkel-ixena ipiñita.

IBAŃETA
Enparauko gixon jantziak
Ametzaga'tar Urtado kalea 20 g,
JOSKINTZA SASTRERIA
TRINCHERAS y GABARDINAS
Hurtado de Amézaga, 20

SE RECOMIENDA POR SI SOLO EL ALIMENTO INSUPERABLE
ALAR-ONENA
Olo afautzagilientzat eta txitak azteko. Utsik ematen ez duten jateknak: Aragi afain eta azuf-irin "Alar Onena".
Especialísimo para gallinas ponedoras y cría de pollitos. Resultados garantizados Harinas de carne, pescado y hueso "Alar Onena"
Maria J. Esnaola
Miracruz, 21 SAN SEBASTIAN Teléfono 12.014
¡ALERTA! EXIGID SIEMPRE LA MARCA "ALAR ONENA"

DOCTOR BENITO PETSCHEN
Partos. Enfermedades de la mujer.
Rayos X. Diatermia.
Prim. 17, entlo. T. 12.761 De 3 a 6
San Sebastián

LUIS ZATARAIN
MEDICO-DENTISTA
Hernani, 2., 1º - DONOSTIA

Dr. Antonio Echeto
Enfermedades de la infancia
Prim, 19. :: San Sebastián

"CAFES MAYA"
Pedidlos en los establecimientos
Sarasate, 15 -:- IRUÑA

RELOJES DE TORRE
Lecea y Murua
VITORIA

Gran Garage Moderno
Reparaciones, suministros y accesorios
Calle Iparraguirre. Teléfono. 10-7-54
SAN SEBASTIAN

PONSOL, S. L.
Fundada en 1833
Sombreros y boinas
NARRICA, 4. DONOSTIA. 10.876

Ferretería, cristalería y loza
Echeverría Hermanos
Calle de Urbieta, 10. Tl., 1-18-84
DONOSTIA

Almacén de Vinos y Licores
HIJOS DE F. MARTINEZ
Narrica, 29. Puerto, 24. Despacho central: Urbieta, 52, DONOSTIA. Teléf., 10.886.

Para artículos de niños, corsés y fajas a medida
"MERKIENA"
LEGAZPI, 1. — DONOSTIA

ASCENSORES MUGUERZA
Zabaleta, 12 y 14 Tf. 12-763 - DONOSTIA
Gordoniz, 5 Tf. 11.496 - BILBAO

VIUDA DE IGNACIO ZUBASTI
Ropa blanca Corsetería
Novedades
Camisería Corbatería
Urbieta, 24. DONOSTIA. Tl. 117-11

Taller mecánico de carpintería y ebanistería
Bernardo Goenaga
Urbieta, 56. DONOSTIA. Tl. 10-652

ALMACEN DE VINOS, ACEITES
José Manuel Alcorta Irazu
Servicio a domicilio
Aldamar, 4. Tel., 1-37-04. Donostia

Imprenta. Papelería
Artículos de escritorio
Larramendi, 19
Teléfono, 11.900
DONOSTIA

Farmacia Carrasco
Easo, 8, y Príncipe, 48. Tl., 11.604
DONOSTIA

A. BARANDIARAN
Toda clase de herramientas y maquinaria para talleres, minas y obras
MAYOR, 5. -- DONOSTIA

Tejidos y Confecciones
OTAÑO HERMANOS
Sastrería y camisería
San Juan, 11. T., 1-10-16. Donostia

CASA ARZAC
PARAGÜERIA
Urbieta, 26 Teléfono, 12.537
DONOSTIA

MIGUEL LARRE
MEDICO - DENTISTA
Churruca, 14, primero. Teléfono, 15.362.
DONOSTIA

La Villa Mouriscot
JOSTUNA KUTXA
Especialidad en guantes y velos
Urbieta, 13. — DONOSTIA